

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozioak funtzionatzeko, ezinbestekoak dira hainbat funtsezko baliabide, hauek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako produktuaren ekoizpena, muntaketa etab. Baliabide hauek, hainbat multzotan banatu eta azalduko ditugu atal honetan.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoen artean honako hauek ditugu: lokala, altzariak, ordenagailua, argindarra... Hauek erabilera desberdinak izango dituzte; esate baterako, produktua muntatzea eta salmenta-bidalketa egitea. Gainera, furgoneta bat erabiliko dugu correos-era eta herriko dendetara kaxak eramateko.



Ondoren, baliabide intelektualei dagokienez, patentea eta elkarteak behar ditugu. Patentea oso garrantzitsua da gure produktuarentzako, guztiz berria delako eta modu honetan, *Aukaren* jabetza totala eduki dezakegu. Beste alde batetik, elkarteak ("Funtsezko elkarteak" atalean aipatu ditugunak, zehazki) ezinbestekoak dira gure proiektua aurrera eramateko, izan ere, gu baino esperientzia gehiago duen talde batekin parte artzeak/aliantza bat sortzeak asko lagunduko digu, marketing-arekiko, bidalketarako,... Beraiek gauzak nola egin erakutsi dezaketelako. Funtsezkoenetako bat hornitzaileak dira. Materiala, hau da, produktuaren piezak sortuko dizkigutelako. Diseinatzailer grafiko bat kontratatzea ere ezinbestekoa izango da, honek gure kaxaren diseinua egingo duelako.

Finantza baliabideak ere beharko ditugu; maileguan eta diru laguntzetan oinarrituko gara. Mailegua eskatzeko BBVA bankuarekin kontaktatuko dugu, beste bankuekin konparatuta bere bezeroekin duen harremana egokiena eta fidagarriena delako. Hau ziurtatzeko, herriko banku guztiekin konparatu dugu, bakoitzaren ezaugarriak ondo aztertuz, eta BBVA-k ordutegi eta diru mugimenduak egiteko aukerarik hoberenak ematen ditu. Proiektua aurrera eramateko beste finantza modu bat ere beharko dugu, hauek diru laguntzak dira. Gipuzkoako Foru Aldundian eskaera bat argitaratu dugu, gure proiektua laguntzeko nahi duten jendeak dirua eskaini dezaten.

Giza-baliabideei erreparatuz, taldekide bakoitzak eskainiko duena aurkeztuko dugu:

Irene betidanik ibili da diru kontuekin, etxean, lagunekin, kalean,... oso azkarra delako kontuak egiteko garaian. Hau da, zerbait erosterako garaia denean adibidez, beti daki nola atera etekin handiena gutxiago ordaintzen, eta enpresa bat montatzerako garian ezaugarri hori oso ondo datorkigu, hasiera batean diru gutxi gastatzeko.

Eider oso ona izan da beti negoziazioak egiten, bereziki guraso eta lagunen artean. Aukera guztiak dituenean hoberean aukeratzeko arazorik ez du, eta hau oso positiboa da elkarteak egiterako garaian. Gainera, ahozko komunikazio ona duenez, bileratan asko aportatu dezake.

Eneko oso ondo moldatzen da sare sozialetan, beti informatuta dabil eta harreman hona du pertsoekin; bai bezeroekin eta baita enpresekin ere. Horregatik, berak sare sozialetako eta marketing-eko sektorean lan egingo du.

Klara oso abila denez eskulanak egiten, eta pazientzia asko duenez, produktuaren muntaketa posible izatea ahalbidetuko du. Horrez gain, taldekideekin duen erlazio onaz baliatuko gara prozesu hau lauron artean egin ahal izateko.

